

GERNIKA-LUMON ERROLDATUTAKOEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA (2024-2025 IKASTURTEA), EUSKARA IKASTEKO, UNIBERTSITATE MAILAKO IKASTAROAK EUSKARAZ BURUTZEKO ETA GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEKO.

CONVOCATORIA PARA CONCESION DE SUBVENCIONES A PERSONAS EMPADRONADAS EN GERNIKA-LUMO (CURSO 2024-2025) CON LA FINALIDAD DE APRENDER EUSKERA, REALIZAR CURSILLOS DE UNIVERSIDAD EN EUSKERA Y OBTENER EL PERMISO DE CONDUCIR EN EUSKERA.

1. Artikulua: OINARRIZKO ARAUAK:

Artículo 1.- NORMAS BASICAS

a) Deialdi hau honako arau hauetan oinarritzen da: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean, lege hori garatzeko erregelamenduan eta 2012ko abenduaren 19ko BAOn argitaratutako Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorrean xedatutakoaren arabera, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauen arabera ere.

a) La presente convocatoria se rige por lo dispuesto en la Ley 38/2003 General de Subvenciones, en su reglamento de desarrollo y en la Ordenanza General Municipal de Subvenciones publicada en el BOB de 19 de diciembre de 2012, así como por el resto de normativa de aplicación.

Deialdi-araudi honetan finkatzen ez denerako, aipatu Ordenantzara joko da (onuradunen betebeharrak, emateko prozeduraren berezitasun administratiboak, dirulaguntzak itzultzea, arau-hausteak eta zigorrak).

En lo no previsto en el presente Reglamento, se estará a lo dispuesto en la citada Ordenanza (Obligaciones de los beneficiarios, peculiaridades administrativas del procedimiento de concesión, reintegro de subvenciones, infracciones y sanciones).

b) Dirulaguntza deialdi honen helburua da Gernika-Lumoko biztanleei dirulaguntzak ematea euskara ikasteko, unibertsitate mailako ikastaroak euskaraz burutzeko eta gidabaimena euskaraz ateratzeko.

b) La finalidad de estas subvenciones es la de ofrecer subvenciones a personas empadronadas en Gernika-Lumo para el aprendizaje del euskera, para realizar cursillos universitarios en euskera y por obtener en euskera el permiso de conducción.

c) Dirulaguntzen legediari jarraiki, honako deialdi hau BDNSn (Dirulaguntzen Datu-base Nazionallean) argitaratuko da, eta horren laburpen bat BAOn iragarriko da. Era berean, Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da eta eta, horrez gain, hurrengo zabalkundea egingo da:

c) De conformidad con la legislación subvencional, la presente convocatoria se publicará en el BDNS (Base de Datos Nacional de Subvenciones) y un resumen de la misma se anunciará en el BOB. Asimismo, se publicará en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y se realizara la siguiente difusión:

- Euskara ikasteko dirulaguntzen kasurako, udalerriko euskaltegiei jakinaraziko zaie.

- En el caso de las ayudas para aprender euskera, se notificará a los euskaltegis ubicados en el municipio.

- Unibertsitate mailan euskaraz eratzten diren ikastaroen kasuan,

EHU/UPV, UEU, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitatea jarriko dira jakitun.

- Gidabaimena euskaraz ateratzeko dirulaguntzen kasurako, udalerriko auto eskolei bidaliko zaie jakinarazpena eta araudia.

d) Egiten den dirulaguntza deialdia 2024-2025 ikasturtekoa da eta indarrean egongo da 2025eko irailaren azkenera arte.

e) Hala dagokionean, eskabideak berregiteko aukera izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 27. artikulua araberan.

f) Dirulaguntza hauek **udal aurrekontuko 5-3354-48100 partidaren bizkar** joango dira; guztira 6.000 € erabiliko dira deialdi honetarako, bidezko kreditu atxikipena bitarteko. Kopuru hori nahiko ez balitz eskaera guztiei erantzuteko, erabakitzeke geratu litezkeenek 2025 urteko aurrekontuaren bizkar jasoko lukete dirulaguntza, eta 2025ean aurkeztu ahal izango diren eskabideetarako ere berdin jokatuko da 2025ko aurrekontuaren kargura behar diren atxikipenak eginik.

g) Eskaeren lehenetsuna Udal Erregistroko sarrera-dataren arabera finkatuko da.

h) Dirulaguntza emateko instrukzioa Euskara Zerbitzuaren ardura izango da; honek bidezko txostena egin ondoren, Euskara zinegotziaren proposamena igorriko zaio Tokiko Gobernu Batzarrari, ebazpena har dezan.

- En el supuesto de los cursos organizados en euskera a nivel universitario, se notificará a las UPV/EHU, UEU, Mondragon Unibertsitatea, Universidad de Deusto y Universidad de Nafarroa.

- En el caso de las ayudas para obtención del permiso de conducir, se remitirá la notificación y la normativa a las autoescuelas del municipio.

d) Esta convocatoria corresponde al curso 2024-2025 y estará en vigor hasta finales de septiembre de 2025.

e) En su caso, las solicitudes podrán ser reformuladas, de conformidad con el artículo 27 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones de 17 de noviembre.

f) Estas ayudas irán con cargo a la partida 5-3354-48100 del presupuesto municipal. Para hacer frente a las solicitudes que se presenten se destinarán 6.000 euros, mediante la correspondiente retención de crédito. Si la cantidad prevista no fuera suficiente para atender todas las peticiones, las que quedaran pendientes de resolución se resolverán con cargo al presupuesto del ejercicio 2025, y en relación a las solicitudes que se presenten durante el ejercicio 2025 se actuará igualmente realizando las retenciones necesarias con cargo al presupuesto de 2025.

g) La prioridad de las solicitudes se establecerá según fecha de entrada en el Registro del ayuntamiento.

h) La instrucción del expediente de subvención competará al Servicio de Euskera; tras realizar éste el informe correspondiente, se remitirá propuesta de la Concejala de Euskera a la Comisión de Gobierno Local, para que ésta decida.

i) Ebazpena hartu eta handik eta zazpi egun barru, Tokiko Gobernu Batzarraren akta iragarriko da udaletxeko iragarki taulan.

j) Ebazpena hartu eta 10 eguneko epean, gehien jota, eskatzaileari jakinarazpen pertsonala bidaliko zaio legez finkaturiko moduan, berak eskaera orrian aipaturako helbidera. Jakinarazpen horretan, ebazpenaren aurkako errekurtsoen berri emango zaio.

k) Deialdia egin eta eskabideak aurkeztu ahala, hiru multzotan banatuko dira ebazteko:

- 2024ko urritik abendura bitartekoak, abenduan ebazteko dira.
- 2025eko urtarriletik apirilera bitartekoak maiatzan ebazteko dira.
- 2025ko maiatzetik irailera bitartekoak, irailean ebazteko dira.

l) Hala denean, eskabideak berregiteko aukera izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 27. artikulua araberara.

2. Artikulua: XEDE NAGUSIA

Gernika-Lumon erroldatutako edozein herritarrek euskaraz aritzeko duen eskubidea bermatzeko, ezinbestekoa da herritar orok euskaraz komunikatzeko ahalmena izatea.

Bestalde, Gernika-Lumoko Udalak, Euskararen Erabilera arautzen duen 10/82 Legea onartu zenetik, ontzat hartu dituen ordenantzetan eta planetan jaso duen guztiaren araberara, beharrezkoa du herri mailan euskararen sustapena burutzea, euskararen erabilpenaren normalizazioa helburu.

Horretarako, Udalak berak antolatzen dituen kanpainez gaindi, euskara ikasteko zein euskaraz trebatzeko ikastaroetarako

i) Adoptada la decisión y transcurridos siete días, se publicará el acta en el tablón de edictos del ayuntamiento.

j) Una vez adoptada la decisión y transcurrido el plazo posterior de 10 días como máximo, se enviará comunicación personal a la persona solicitante en forma legal y al domicilio señalado en la hoja de solicitud. En dicha notificación se le dará cuenta de los recursos pertinentes contra el acuerdo.

k) Realizada la convocatoria y a medida que se vayan presentando las solicitudes, se agruparán en tres listas para su resolución:

- Las presentadas desde octubre a diciembre de 2024 se resolverán durante el mes de diciembre.
- Las presentadas de enero a abril de 2025, se resolverán durante el mes de mayo.
- Las presentadas de mayo a septiembre de 2025 se resolverán durante el mes de septiembre.

l) Cuando corresponda, habrá posibilidad de subsanar las solicitudes, acorde con el artículo 27 de la Ley General de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre.

Artículo 2.- OBJETIVO PRINCIPAL

Para garantizar el derecho que cualquier persona empadronada en Gernika-Lumo tiene de utilizar el euskera, es totalmente necesario que toda la ciudadanía tenga capacidad de comunicarse en euskera.

Por otro lado, para el Ayuntamiento de Gernika-Lumo, desde que se aprobó la Ley 10/82 reguladora del Uso del Euskera y teniendo en cuenta las ordenanzas y planes aprobados por sus órganos, es incuestionable promover el euskera entre su población con la finalidad de normalizar su uso.

Para ello, además de las campañas que se organiza el ayuntamiento, ésta entidad ve

dirulaguntzak eskaini beharra dakusa Udalak, Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (2023-2027 epea) aintzat hartutako zenbait ekintzekin bat jokatuta.

Horrez gain, beste esparru bat gehitu zaio araudi honi, gidabaimena euskaraz ateratzeko dirulaguntzena alegia. Horretarako, araudi honen 1. Xedapen gehigarria jo beharko da.

3. Artikulua: ONURADUNAK

Eskatzaileak Gernika-Lumon erroldatutako 16 urtetik gorakoak izango dira, edo, "HITZARGUNE" hitzarmengintza kanpainan (enpresa esparrua, merkataritza eta elkarteak) inplikaturik egonik, Gernika-Lumoko Udalarekin hitzarmena sinatuta duten erakundeetako langileak eta kideak (nahiz eta Gernika-Lumon erroldatuak izan ez).

Salbuespena motorrak gidatzeko baimenaren kasua, 14 urtetik gorakoek ere eskatu ahal izango dutelako horretarako dirulaguntza (1. Xedapen gehigarria).

4. Artikulua: BALDINTZA OROKORRAK

4.1.- HABEk homologatutako ikastaroetan egin beharko da matrikula. Euskalduntze zein alfabetatze ikastaroak aintzat hartuko dira eta Barnetegian egindako ikastaroengatik ere jaso ahal izango da laguntza, egoitza eta garraio gastuak kanpo izanik.

4.2.- Euskal Herriko unibertsitateetan (Udako Euskal Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea) uda eta opor sasoiaren burutzen diren ikastaroen kasurako, erakunde bakoitzaren programazioan aintzat hartutakoak izan beharko dira eta osorik euskaraz burutzekoak. Aurreko kasuan bezala, egoitza eta garraio gastuak ez dira dirulaguntza gai,

necesario ofrecer ayudas de cara al aprendizaje y el perfeccionamiento del euskera, acorde con diversas acciones perfiladas en el Plan de Acción para la Promoción del Euskara (período 2023-2027).

Además, se incorpora un nuevo apartado a este reglamento: las ayudas para poder sacar el carnet de conducir. Para ello, se tendrá en cuenta la disposición adicional de este reglamento.

Artículo 3.- BENEFICIARIOS

L@s solicitantes deberán estar empadronad@s en Gernika-Lumo y tener 16 años cumplidos. También podrán acceder l@s trabajador@s y miembros de organismos que hubieran firmado el convenio de la campaña "HITZARGUNE" (empresas, comercios y asociaciones), aún no estando empadronad@as en Gernika-Lumo.

En el caso de la licencia para ciclomotores se da la salvedad de que podrán solicitar la ayuda los mayores de 14 años (Disposición Adicional 1).

Artículo 4.- REQUISITOS GENERALES

4.1.- La matrícula deberá realizarse para un curso homologado por HABE. Se admitirán cursos de euskaldunización y de alfabetización, así como los cursos realizados en internado, quedando en este caso excluidos de la ayuda los gastos de estancia y transporte.

4.2.- En el caso de cursos realizados durante el verano ó época vacacional en las universidades (Universidad Vasca de Verano, Universidad del País Vasco, Universidad de Navarra, Universidad de Mondragon, Universidad de Deusto) deberán ser cursos contemplados en la programación de cada universidad y a desarrollar enteramente en euskera. Al igual que en el punto anterior, no se incluirán en la ayuda los gastos de estancia y transporte, por lo

beraz, eskaeran zehaztu egin beharko da matrikula kontzeptuan ordaindutakoa.

4.3.- Eskaria aurkeztu orduko, matrikula ordainduta eduki beharko da.

4.4.- Eskatzaileak izena eman duen euskaltegian amaitu beharko du ikastaroa.

4.5.- Onuradunak dirulaguntza eskatzen duen urratserako edo ikastarorako aurretik beste dirulaguntzarik jaso ez izatea.

4.6.- Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein erakunde publikok zein pribatuk ematen dituen dirulaguntzekin, baina dirulaguntza guztien artean ezin izango da jaso matrikularen zenbatekoa baino gehiago.

4.7.- Araudi honetako “6.3” eta “7”. artikuluetan zehaztutakoaren araberako zigorren eragina ez izatea.

5. Artikulua: DIRULAGUNTZA KOPURUAK

Dirulaguntzak bi motakoak izango dira: matrikulatzeagatik emango direnak eta ikastaroan izandako asistentziagatik emango direnak.

Dirulaguntzetarako mugak hurrengoak izango dira:

- Ikastaro bakoitzeko 500 € jaso ahal izango ditu eskatzaile bakoitzak gehienez.
- Urtean zehar egin daitezkeen ikastaro guztiengatik eskatzaile batek 800 € jaso ahal izango ditu gehien jota.

5.1.- Matrikulatzeagatik dirulaguntzak

Euskaraz ikasteko borondatea erakusteagatik, matrikula egitean ematen den dirulaguntza da hau. Matrikularen %40koa izango da gehien jota, eta jasotzailearen diru sarreraren eta matrikulatzen den mailaren arabera barematuko

que deberá concretarse en la solicitud lo abonado en concepto de matrícula.

4.3.- Deberá abonarse la matrícula previamente a solicitar la subvención.

4.4.- El/La solicitante deberá finalizar el curso en el mismo euskaltegi donde se hubiera matriculado.

4.5.- El/La beneficiari@ no deberá haber percibido previamente subvención alguna para el nivel o curso para el que se solicita.

4.6.- Estas ayudas serán acumulables con las concedidas por otras entidades públicas ó privadas, siempre que el total subvencionado no supere lo abonado en concepto de matrícula.

4.7.- No ser sancionado en base a lo establecido en los artículos “6.3” y “7” de este reglamento.

Artículo 5.- CANTIDAD DE LAS AYUDAS

Las ayudas serán de dos tipos: las concedidas por la simple matriculación y las concedidas por la asistencia al curso.

Los límites de las subvenciones serán los siguientes:

- Cada solicitante podrá percibir un máximo de 500 € por cada curso realizado.
- El máximo a percibir por cada solicitante por todos los cursos que pudiera realizar durante un año será de 800 €.

5.1.- Subvenciones por matriculación

Esta ayuda va unida a la voluntad de aprender euskera mostrada por el hecho de la matriculación. Como máximo se concederá una ayuda del 40% de la matrícula y se baremará en base a los ingresos del solicitante y el nivel en el que se matricule. Se da la salvedad del

da. Salbuespena dugu 5.2. artikulua, doakorako eskubidea duten pertsonen kasua, matrikularen %50eko dirulaguntza dagokielako.

Eskatzailearen diru-sarrerak kalkulatzeko, berak bakarrik dituen ingreseak edo, eduki ezean, bizi den familiaren diru-sarrerak zati familia-kide kopuruaren arabera hartuko da kontuan. Diru-sarrera kopuruak hiru mailatan banatuta dago:

- Urteko eta kideko, 6.800€ edo gutxiagokoa.
- Urteko eta kideko, 6.800€ eta 13.600€ artekoa.
- Urteko eta kideko, 13.600€ baino gehiagokoa

Matrikularen maila, Europako mailaketa berriaren arabera zehaztuko da, euskararen berezitasunarengatik, *alfabetatze* maila gehitu zaiolarik. Komunikazio ahalmena bermatzeko, gehiago laguntzen zaio maila baxuetan matrikulatzen denari.

Hurrengo taulak, egoera bakoitzari egokitzen zaion dirulaguntza erakusten du, matrikularen ehunekotan emanda:

artículo 5.2 para las personas que tengan derecho a la gratuidad, en cuyo caso se concederá una ayuda del 50% de la matrícula.

Para calcular los ingresos de la persona solicitante, se tendrán en cuenta los de la persona en particular ó, si no teniéndolos dependiera de una unidad familiar, se dividirán los ingresos familiares por el número de miembros. Este baremo se distribuirá en tres tramos:

- Por año y miembro, hasta 6.800€
- Por año y miembro, entre 6.800€ y 13.600€.
- Por año y miembro, superior a 13.600€

El nivel de matriculación se establecerá acorde con la nueva nivelación Europea, añadiéndose el nivel de *alfabetización* por la especificidad del euskera. En aras a garantizar la capacidad comunicativa, se beneficiará a aquellos que se matriculen en niveles inferiores.

La siguiente tabla refleja la ayuda correspondiente a cada situación, en proporción a la matrícula abonada:

| MAILA/ NIVEL | DIRU SARRERAK (familia kideko/urteko) INGRESOS (por miembro familiar) | | |
|---------------------|--|---------------|---------|
| | <=6.800 | >6.800<13.600 | >13.600 |
| A1 | %40 | %30 | %20 |
| B1 | %35 | %25 | %15 |
| B2 eta Alfabetatzea | %30 | %20 | %10 |
| C1 | %25 | %15 | %5 |
| C2 | %20 | %10 | 0 |

5.2.- Ikastaroaren aprobetxamenduagatik dirulaguntzak

Ikastaroaren aprobetxamendua, ikastaroaren zehar izandako asistentziaren arabera neurtuko da. Eskatzaileak, %70eko asistentzia bete beharko du eta dirulaguntza matrikularen %35ekoa izango da kasu guztietan. Doakoaren

5.2.- Ayudas por el aprovechamiento del curso

El nivel de aprovechamiento del curso se medirá en base a la asistencia al mismo. El/La solicitante deberá acreditar una asistencia superior al 70% y la ayuda será del 35% de la matrícula en todos los casos, salvo que

kasuan, gainerako %50a dagokio eskatzaileari, behin eta %70eko gutxieneko asistentzia betetzen badu.

5.3.- Asistentziagatiko dirulaguntza jasotzeko eskubiderik ez dute izango hurrengoek:

- **5.3.1.-** Aita Villasante Udal Euskaltegiko ikasleek, asistentziagatik bertan eskaintzen delako beka sistema.
- **5.3.2.-** HABEk ematen dituen dirulaguntzak jasotzeko azterketa gaindituko luketenek: HABEko 1. maila, 2. maila eta EGA.

5.4.- Doakotasunerako kasuak.- Doakoa izango dute Oinarrizko Errenta edo antzeko dirulaguntza zuzenean jasotzen dutenek edo sendi baten pentsura izanik sendi-buruak laguntza horiek jasoko balitu; doakoa dagokie baita langabezian daudenei. Dena dela, doakoa izateko hurrengo baldintzak aplikatuko dira:

- **5.4.1.-** Matrikularen %50 ikastaroa hasten denean, 6. atalean aipatuko diren agiriak aurkeztuz gero, Oinarrizko Errenta zein parekoa edo langabezian dagoeneko ziurtagiriarekin batera.
- **5.4.2.-** Matrikularen gainerako %50 ikastaroa amaitu ostean, %70eko asistentzia bete deneko euskaltegiaren ziurtagiria eskaera orriarekin batera aurkeztuz gero. Dirulaguntza honetatik kanpo geratuko dira 5.3. artikuluan aipaturiko kasuetan daudenak.

6. Artikulua: ESKARIAK ETA AGIRIAK

6.1.- Eskari-orria (1. eranskina) Gernika-Lumoko Alkateari zuzenduko zaio eta, horrekin batera, hurrengo **agiriak** aurkeztu beharko dira:

corresponda la gratuidad, en cuyo caso la ayuda por asistencia será del 50% restante, siempre que cumpla con el mínimo del 70% de asistencia.

5.3.- Personas que no tendrán derecho a subvención por el concepto de asistencia:

- **5.3.1.-** L@s alumn@s del Euskaltegi Municipal Aita Villasante, por existir en el mismo una beca por asistencia.
- **5.3.2.-** Aquel@s que superen el examen establecido para acceder a las ayudas de HABE: nivel 1 y nivel 2 de HABE y EGA.

5.4.- Casos de gratuidad.- Corresponderá la gratuidad a las personas que perciban directamente la Renta Básica, ó similar, ó que estando integrados en una familia el cabeza de familia sea perceptora de la misma. También optarán a la gratuidad las personas en paro. De todas formas, la gratuidad se sujetará a las siguientes condiciones:

- **5.4.1.-** El 50% de la matrícula al inicio del curso, debiendo presentar los documentos reseñados en la cláusula 5, junto con el documento que acredite ser perceptor/a de la Renta Básica ó situación de paro.
- **5.4.2.-** El 50% restante de la matrícula tras finalizar el curso, presentando junto con la solicitud el certificado del euskaltegi que acredite una asistencia superior al 70%. Quedarán excluidas de esta ayuda las personas afectadas por los casos contemplados en el artículo 5.3.

Artículo 6.- SOLICITUD Y DOCUMENTACION

6.1.- La solicitud (anexo 1) irá dirigida al Alcalde de Gernika-Lumo e irá acompañada de los siguientes documentos:

- Dagokion euskaltegiak/unibertsitateak emandako ikasle-fitxa, matrikulagatiko dirulaguntza eskatuz gero.
- Aprobetxamenduagatiko dirulaguntzarako, asistentziagatiko egiaztagiria, dagokion erakundeak emandakoa.
- Matrikula ordaindu deneko agiria.
- Langabetuaren kasuan, Lanbide-ren egiaztagiriaren fotokopia.
- Langilea edo ikaslearen kasuan, PFEA / IRPFren fotokopia; langilearen kasuan berea eta ikaslearen kasuan gurasoek batera egindakoa edo gurasoetako batena.
- Errolda egiaztagiria edo "Hitzargune" hitzarmengintza kanpainan inplikaturako erakundeke langile edo kide izatearen froga.
- Kasua balitz, Oinarrizko Errenta jasotzailea izateagatiko egiaztagiria.
- Para solicitar ayuda por matriculación, la ficha de alumn@ expedida por el correspondiente Euskaltegi/Universidad.
- Para la ayuda por aprovechamiento, el certificado de asistencia emitido por la entidad correspondiente.
- Documento acreditativo del abono de la matrícula.
- En el caso de las personas que se encuentren en paro, fotocopia del certificado de Lanbide.
- En el supuesto de trabajador/a o estudiante, fotocopia de la declaración de IRPF; en el caso de trabajador/a el del/de la solicitante y en el supuesto de estudiante la conjunta de los progenitores o de uno de ellos.
- Certificado de empadronamiento ó acreditación relativa a trabajar en una empresa o pertenecer a una entidad implicada en la campaña "Hitzargune".
- Si correspondiera, certificado de ser beneficiario/a de la Renta de Garantía de Ingresos.

6.2.- Eskariak aurkezteko epeak:

- **6.2.1.-** Matrikulagatiko dirulaguntza eskabidea ikastaroan izena eman eta hilabeteko epean, edo ikastaroa amaitu eta hilabeteko epean aurkeztu beharko da.
- **6.2.2.-** Asistentziagatiko dirulaguntza eskabidea, ikastaroa bukatu ondorengo hilabeteko epean aurkeztu beharko da.
- **6.2.3.-** Ikastaro trinkoa edo barnetegikoa balitz eta hilabeteko epean bukatzekoa, matrikulagatiko eta asistentziagatiko dirulaguntzak biak batera eskatuko dira, ikastaroa bukatu eta hilabeteko epean.

6.2.- Plazos para la presentación de solicitudes:

- **6.2.1.-** La solicitud de ayuda en concepto de matrícula se presentará en plazo de un mes desde la fecha de matriculación, o en plazo de un mes desde la finalización del curso.
- **6.2.2.-** La solicitud de ayuda por asistencia se presentará tras haber finalizado el curso, en plazo de un mes desde su finalización.
- **6.2.3.-** En el supuesto de un curso intensivo ó realizado en internado y que tenga una duración inferior a un mes, se solicitarán de una vez las dos ayudas correspondientes a

la matrícula y a la asistencia, en plazo de un mes tras haber finalizado el curso.

6.3.- Akats zuzenketak:

Eskatzen diren derrigorrezko agiri guztiak ez aurkezteagatik edo aurkeztutakoetan akatsak eta hutsuneak daudelako jakinarazpena bidaliko zaio eskatzaileari, jakinarazpena jaso eta hurrengo hamar egunetako epean behar diren agiriak aurkeztu edo zuzentzearen. Eskatzaileak epe horretan ez balu ezer aurkeztu edo zuzenduko, dirulaguntza eskaerari uko egiten diola ulertuko da.

6.4.- Dirulaguntzaren zuriketa

Dirulaguntza hauen berezitasuna kontuan izanik, ez da eman osteko zuriketarik eskatuko, eman orduko justifikatu beharko delako matrikula ordaindu izana edota egindako ikastaroaren aprobetxamendua, ikastaroa eman duen erakundearen txostena ziurtagiria aurkeztuz.

7. Artikulua: DIRULAGUNTZA HAUETATIK BAZTERTUAK

Dirulaguntza hauetatik hurrengoak baztertutak izango dira:

- Beharrezkoa den dokumentazioa epez kanpo aurkezten dutenak.
- Derrigorrezkoak diren dokumentu guztiak aurkezten ez dituztenak.
- Azken ikasturtean maila berdinerako dirulaguntza eskuratu eta asistentzia minimoa (%70) gainditu ez dutenak. Salbuetsita geratuko dira ondorengo arrazoiengatik ikastaroa utzi dutenak:
 - Osasun arazoengatik: gaixotasunak, operazioak, amatasuna,... bidezko ziurtagiriarekin.
 - Denbora gabeko erditzea eta amatasunak.

6.3.- Corrección de errores:

En caso de no haberse presentado toda la documentación requerida ó de que la aportada adolezca de errores y falta de datos, se notificará al solicitante para que en plazo de diez días de recibida la notificación proceda a la oportuna corrección. Si en dicho plazo el solicitante no aportara documento alguno ni realizara la correcciones señaladas, se entenderá que desiste de la solicitud de subvención.

6.4.- Justificación de la subvención

Teniendo en cuenta las características de estas subvenciones, no será preciso justificar su uso tras su concesión, dado que habrá de justificarse con antelación el abono de matrícula y/ó el aprovechamiento del curso mediante informe de la entidad correspondiente.

Artículo 7.- CAUSAS DE EXCLUSION DE ESTAS AYUDAS

Quedarán excluidas del derecho a estas subvenciones las siguientes personas:

- Aquellas personas que presenten la documentación fuera de plazo.
- Las personas que no presenten toda la documentación requerida.
- Aquellas que habiendo percibido subvención para el mismo nivel durante el curso anterior no hubieran cumplido con el mínimo de asistencia (70%). No afectará esta exclusión a las personas que hubieran abandonado el curso por los siguientes motivos:
 - Motivos de salud: enfermedad, operaciones, maternidad,... con el correspondiente certificado.
 - Parto prematuro y maternidad.

- Hemen zerrendatu gabeko kasurik alegatuko balitz, Gernika-Lumoko udaleko ahalmena duen organoak ebatziko du, Euskara Zerbitzuak araudi honen ildotik emandako txostenaren argitan.

- En caso de alegarse motivos diversos a los aquí señalados, la resolución corresponderá al órgano competente del Ayuntamiento de Gernika-Lumo, previo informe del Servicio de Euskera emitido acorde con los criterios establecidos en este reglamento.

Igo XEDAPEN GEHIGARRIA

DISPOSICION ADICIONAL I

GIDABAIMENA LORTZEKO DIRULAGUNTZAK

SUBVENCIONES PARA OBTENER EL PERMISO DE CIRCULACION

Araudi honen arabera ematen diren dirulaguntzei, **gidabaimenaren azterketa euskaraz egiteagatikoa** gehitzen zaie hurrengo baldintza hauen menpe:

A las subvenciones que se conceden en base a esta normativa, se añade la relativa a la **realización del examen del permiso de conducción en euskera**, bajo las siguientes condiciones:

a).- Kotxerako gidabaimenaren kasuan beharrezkoa izango da eskatzailea 16 urtetik gorakoa izatea eta ziklomotorretarako baimenaren kasuan 14 urtetik gorakoa (16 urtetik beherakoen izenean tutorea edo ordezkari legala arituko da). Bietan Gernika-Lumon erroldatuta egon beharko da.

a).- En el supuesto del permiso de conducción de automóviles, podrán solicitar las ayudas los mayores de 16 años y en el caso de los ciclomotores los mayores de 14 años (en nombre de los menores de 16 años deberán actuar el tutor o representante legal). En ambos casos se deberá estar empadronado en Gernika-Lumo.

b).- Gidabaimenaren azterketa euskaraz egin izana egiaztatu egin beharko da Trafiko zuzendaritzak emandako ziurtagiriaren bitartez.

b).- Se deberá certificar el haber realizado el examen de permiso de conducción en euskera mediante el correspondiente certificado de la Dirección de Tráfico.

c).- Dirulaguntza azterketa egin ostean eskatuko da eta hurrengo baremoaren arabera emango da:

c).- La subvención se solicitará con posterioridad a la realización del examen de conducción y se concederá en base al siguiente baremo:

- Kotxerako teorikoa lehenengo deialdian euskaraz egiteagatik, 80 euroko dirulaguntza, gainditu zein ez gainditu.

- Por la realización del examen teórico para automóviles en euskera en primera convocatoria, 80 € de subvención, se supere o no dicha prueba.

- Kotxerako praktikoa lehenengo deialdian euskaraz egiteagatik, 80 euroko dirulaguntza, gainditu ala ez.

- Por la realización del examen práctico para automóviles en euskera en primera

- Kotxerako azterketa euskaraz egiteko bigarren deialdira joz gero, 40 euroko dirulaguntza jaso ahal izango da teorikoagatik eta beste 40 praktikoagatik, gainditu ala ez.

- Motorrak gidatzeko baimena lortzeko azterketa euskaraz gainditzeagatik (teorikoa eta praktikoa), 50 euroko dirulaguntza bakarra.

- Ziklomotorrak gidatzeko baimenaren azterketa euskaraz gainditzeagatik (teorikoa eta praktikoa), 50 euroko dirulaguntza bakarra.

d).- Dirulaguntza eskaera egiteko, azterketa egin osteko hilabeteko epea egongo da.

e).- Xede honekin emango diren dirulaguntzak tramitatzeko eta horretarako erabiliko diren diru kopuruei dagokienean, araudiko 1. arauari eutsiko zaio.

convocatoria, 80 € de subvención, se supere o no dicha prueba.

- Por la realización del examen para automóviles en segunda convocatoria, 40 € por el teórico y otros 40 € por el práctico, se supere o no el examen.

- Por la superación del examen (teórico y práctico) del permiso de conducción de motos en euskera, subvención única de 50 €.

- Por la superación del examen (teórico y práctico) del permiso de conducción de ciclomotores en euskera, subvención única de 50 €.

d).- El plazo para presentar la solicitud de subvención será de un mes a partir de la realización de correspondiente examen.

e).- Para la tramitación de las ayudas concedidas en base a esta norma y en lo relativo a las partidas destinadas a ello se estará a lo señalado en la norma nº 1 de este reglamento.

ESKATZAILEAREN DATUAK

Datos del Solicitante

| | | |
|---|------------------|------------------------------------|
| Izen-Abizenak / Nombre y Apellidos | | NAN / DNI |
| Nor: <input type="checkbox"/> Interesduna / Persona interesada En calidad de: | | |
| <input type="checkbox"/> Noren izenean/En representación de Ordezkatuaren IFZ: / NIF del representado: | | |
| Helbidea / Domicilio | | |
| Herria / Población | PK / C.P. | Probintzia |
| E-maila | Telefonoa | Sakelakoaren zk. / N° móvil |
| Kontu zk. / N° cuenta | | |

AZALPENA / Expone

- Euskara ikasteko edo euskaraz trebatzeko eskaintzen diren diru laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen ditut. / Cumpló las condiciones para recibir las subvenciones para estudiar euskara.

IKASTAROAREN ZEHAZTASUNAK / Datos del curso

| | | |
|--|----------------|--|
| Euskaltea / Unibertsitatea / Autoeskola | | Ikastaroa eta maila / Curso y nivel |
| Ordu kopurua / N° horas | Prezioa | Noiz hasi eta noiz bukatu / Fecha inicio y finalización |

ESKAERA / Solicita

| |
|--|
| <input type="checkbox"/> Ikastaroa egiteagatik, matrikulagatiko diru laguntza / Por matrícula <input type="checkbox"/> Ikastaroan izandako asistentziagatiko diru laguntza / Por asistencia <input type="checkbox"/> Gidabaimena lortzeko azterketa egiteagatik / Por permiso de conducción |
|--|

AURKEZTUTAKO AGIRIAK / Documentación presentada

| | |
|---|--|
| <input type="checkbox"/> Ikaslearen fitxa / Ficha del alumno/a (zentroarena) <input type="checkbox"/> Matrikula ordainketa / Justificante de abono | <input type="checkbox"/> Asistentziagatiko agiria |
| <input type="checkbox"/> Langabetu agiria / Justificante de paro <input type="checkbox"/> IRPFren azken deklarazioa / Última declaración de IRPF <input type="checkbox"/> Beste Batzuk (Oinarrizko Errenta jasotzailea) / Otros (Perceptor renta mínima,...) | |

Eskabide honetan jasotako datuak fitxategi batean txertatuko dira, GERNIKA-LUMOKO UDALAREN jabegekoko den fitxategian. Hori guztia, DBAO-ren 7. artikularen arabera. Datu bilketa honen helburua da zure datu pertsonalak kudeatzea, euskara ikasteko diru laguntza lortzea xede. Datuak ez zaizkio inori lagako, legezko betebeharrak salbu. Datuen jabeak, dohainik erabili ahal izango ditu indarrean dagoen legediak aintzat hartzen dituen eskubideak, Gemika-Lumoko Udaleko Idazkaritza Orokorrean zuzenduta (Foru Plaza 3, Gemika-Lumo, P.K. 48300 Bizkaia).

Los datos recabados en esta solicitud, serán incluidos en un fichero cuya titularidad pertenece a AYUNTAMIENTO DE GERNIKA-LUMO, conforme al art. 7 del RGPD. La finalidad de esta recogida es la gestión de sus datos personales para obtener una subvención para estudiar euskara. Los datos no serán cedidos salvo obligación legal. El titular de los datos podrá ejercitar gratuitamente los derechos contemplados por la legislación vigente, dirigiéndose al Servicio Secretaría General del Ayuntamiento de Gemika-Lumo, en Foru Plaza n°3 de Gemika-Lumo, C.P. 48300 Bizkaia.

| |
|--|
| <input type="checkbox"/> Zure datuen erabilera arestian aipatutako baldintzetan ontzat ematen baduzu, markatu laukia En caso de que acepte el tratamiento de sus datos en los términos previstos anteriormente marque la casilla |
|--|

Gernika-Lumon,(e)ko ren (e)an.

Sinadura / Firma

INPRIMATU

GARBITU

GERNIKA-LUMOKO UDALEKO ALKATE-LEHENDAKARIA